



EAEko Legebiltzarreko Hezkuntza batzordean haurreskolak partzuergoko LAB, STEILAS eta ELA sindikatuen agerraldia

Gaur goizean Haurreskolak Partzuergoan ordezkariak dugun sindikatu guztiok Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean egindako agerraldian, 0-3 hezkuntza-zikloaren garrantziaren aitortza aldarrikatzeaz gainera, Eusko Jaurlaritzak eta Hezkuntza Sailburuek hartutako erabakien ondorioz, Haurreskolak Partzuergoaren etorkizuna kolokan jarri dutela salatu dugu, baita gaur egun ditugun eskakizun nagusiak mahai gainean jarri ere:

- Ume guztien hezkuntza-eskubidea bermatzeko asmoz, zerbitzuaren erabateko doakotasuna eta sarbide unibertsala.
- Beraz, haurtzarorako Eusko Jaurlaritzak eman beharreko hezkuntza eskaintza eraginkorra bermatzeko, Haurreskolak Partzuergo Hezkuntza Sailean sartzea.
- Matrikulazioa bulltzatzea. Arduratuta gaude Haurreskolak Partzuergoak ikasturte honetan izandako matrikulazio jaitsieragatik; pandemiarengatik atzeratu eta baldintza txarretan egiteaz gain, ez da izan inolako propaganda instituzionalik.
- Haurreskolak Partzuergoko gerentziak aldebakarrez harturiko erabaki batzuk bertan behera geratzea. Matrikulazio jaitsieraren aitzakiaz, Haurreskolak Partzuergoko hezkuntza-proiektua arriskuan jartzen duten hainbat erabaki hartu ditu gerentziak. Horietako batzuek lan-hitzarmena eta araudiak urratzen dituzte: ordezkariak ez kontratatzea, hezitzaileak zentruen artean desplazatzea edo aparteko orduen erabilera okerra. Egoera hau lanpostuak suntsitzeko eta langileen lan-baldintzak okertzeko baliatzen ari da.
- Negoziazio kolektiboaren mahaia deitzea, baita bertan Hezkuntza Sailak izendatu behar duen ordezkariak parte hartzea. Haurreskolak Partzuergoak eta Hezkuntza Sailak ez dute lanpostuak kontsolidatzeko neurririk hartu eta ez dute lan-hitzarmena osotasunean negoziatzeko borondaterik aurkeztu. Gauzak horrela, benetako negoziazioa zabaltzea eskatzen dugu.

Ondorioz, Hezkuntza Batzordean egin dugun agerraldian azpimarratu nahi izan dugu: jokoan dagoena da haurreskolek daukaten garrantzia eta 0-3 zikloak hezkuntza sisteman egiten duen ekarpena onartzea; Haurreskolak Partzuergoak, zerbitzu publikoa den heinean, euskal familiek hezkuntzarako duten aukera berdintasunerako lehen giltzarri bezala onartzea.

Horrek finantziazioa eskatzen du. Izan ere, Haurreskolak Partzuergoaren Gerentziak argi utzi du, Zuzendaritza Batzordearen onespenerekin batera hartutako erabakiekin, haurreskoletarako inbertsio ekonomiko nahikorik ez dagoela, eta horrelako neurriek helburu ekonomizistei erantzuten dietela, jendarteak dituen beharrei erantzun ordez.

Horretan dago gakoa, eta hau da LAB, STEILAS eta ELA sindikatuek eskatu duguna: finantziazioa igotzea kalitatezko zerbitzua publikoa eskaintzeko eta langileen eskubideak bermatzeko; aitortza politikoa, haurreskoletako langileen, haurren eta familien beharretara egokitutako politikak, eta Hezkuntza Sailaren kudeaketa zuzena.

Hortaz, eta bukatzeko, argi utzi nahi dugu: gaur egungo haurreskoletako argazkia aldatu beharra dugu. Kalitatezko hezkuntza sistema batean 0-3 zikloak izan behar duen aitortza politikoa lortzea da gure helburua eta, horretarako, ez dago alternatibarik: haurreskoletako finantziatioa egokitu eta Haurreskolak Partzuergo publikoan gehiago inbertitu behar da. Azken finean, hezkuntzan egiten den inbertsioa jendartearen ongizatean inbertitzea da.

LAB, STEILAS eta ELA sindikatuak
2020ko azaroaren 9an.

